



3002ka r/A Ilcatetza
Pasa el presente escrito al Negociado de
..... para su trámite
2018 FEB. 07
LASARTE-ORIA
IDAZKARI ORRORRA



EH BILDUK UDAL TALDEA - LASARTE-ORIAN PRAKTIKA ZENTSURATZAILEEN KONTRAKO MOZIOA

Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalak, bere 19. artikuluan, pertsona guztiek duten iritzi- eta adierazpen-askatasuna aitortzen du. Horrek informazioa eta iritziak nolanhiko adierazpidez jaso eta zabaltzeko eskubidea barne hartzen du, besteak beste.

Eskubide horren babesle irmoenak eta eredugarrienak Instituzioak izan beharko lirateke. Askotan ez da horrela, ordea. Naturaltasun kezagarri batez, Instituzioak izaten ari dira, hain zuzen, azken aldi honetan mota ezberdinetako adierazpen egiten eta agindu ematen ari direnak Lasarte-Orian eskubide horren kontra; modu arbitrario eta selektiboan eman ere: kartel edota pankarten mezuaren izaeraren arabera, alegia.

Horren adibideak ez dira gutxi. Azaroko Udal Batzarrean horrela esan zuen Alkateak: *"Se está realizando una labor muy importante para retirar la cartelería que no es conveniente"*, eta presoen aldeko kartelak aipatu zituen zehazki; edota, *"Una de las medidas adoptadas es la supresión de una de las señales de Tajamar, para impedir que se pongan pancartas"*.

Udaletxean jarraituz, Kale Garbiketaren pleguen eztabaidan, Obra eta Zerbitzuetako Departamentuko arduradun politikoak argiki aitortu zuen berak ezin zituela onartu Kataluniako kartelak eta senyerak eta kentzeko agindua eman zuela. Salbuespen bakarra onartzen omen du PSOEko zinegotziak: maiatzaren leheneko pankartak. Industrialdeetan bakarrik, hori bai, *"no tiene sentido un cartel del 1 de mayo en el centro del pueblo, que se vayan al industrialdea, que es donde les afecta"*. Azkenaldian, Udal departamentu horretatik agindua eman zaio Landaberri Ikastolari Erraustegiaren kontrako bertako pankarta kentzeko.

Baina ez da Udala bakarrik oldartze zentsuratzaile honetan nabarmendu dena. Haurrengan, eta gizartean oro har, askatasuna, dialogoa eta errespetua bezalako baloreak sustatu eta bultzatu beharko zituen Gipuzkoako Hezkuntza Delegaritzak ere zentsorearen lanak beregain hartu ditu. Erraustegiarekiko duten kezka adieraziz eta osasun bermeen inguruko argibideak eskatuz, Landaberriko Ikastolako irakasleen gehiengo zabal batek bi alditan bidali du eskutitz bat Gipuzkoako Hezkuntza Ordezkaria den Gemma Gonzalez de Txabarriri, eta baita pankartaren bat jarri ere kanpoaldean. Ezkutitzak ez du erantzunik izan baina bai, ordea, pankartak kentzeko agindua jaso dute Hezkuntza Ikuskaritzatik. Sortutako presioa eta beldurraren poderioz, irakasleek pankarta kendu dute.

Hauek guztiak kontutan hartuta, EH Bilduko Udal Taldeak ondoko akordioa hartzea proposatzen dio Lasarte-Oriako Udal Batzarrari:

1.- Lasarte-Oriako Udalak praktika zentzuratzaileak gaitzetsi eta adierazpen askatasuna defendatzeko konpromezua hartzen du, adierazpen mota eta pentsamolde guztiak modu berean tratatuz, eta diskriminazioa, arbitrarietatea eta subjektibitatea baztertuz.

2.- Lasarte-Oriako Udalak Gipuzkoako Hezkuntza Delegaritzaren jokabidea gaitzesten du; gogoratuz askatasuna, dialogoa eta errespetua bezalako baloreak direla Hezkuntza Sistema demokratiko baten oinarria eta funtsa, eta ez zentsura eta inposaketa.

3.- Lasarte-Oriako Udalak Gipuzkoako Hezkuntza Delegaritzari akordio honen berri ematea adosten du.

Lasarte-Orian, 2018ko otsailaren 7an

A handwritten signature in black ink, consisting of several loops and a long horizontal stroke at the bottom.